



**2014KO MARTXOAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko martxoaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onspenera aurkeztzen da 2014ko martxoaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 12 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMABI MILA SEIEHUN ETA HOGEI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (12.620,50 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

606 zbk.dun esped.: baja ematea 2014ko otsailaren 13tik aurrera, laguntza pertsonalerako prestazioa jasotzen hasi delako.

13 zbk.dun esp.: baja ematea 2014ko otsailaren 19tik aurrera, laguntza pertsonalerako prestazioa jasotzen hasi delako.

- 14-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2014ko otsailaren 7tik aurrera, astelehenetik larunbatera, egunean 2 ordu. Onuradunak zerbitzu kostuaren %15a ordainduko du.
- 14-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2014ko otsailaren 25ean eta baja martxoaren 8an heriotzagatik. Onuradun honek astean bi egun eta egunean 3 orduko zerbitzua jaso du. Bere ekarpena zerbitzu kostuaren %35a izan da.
- 14-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzu kostuaren ordainketan aldaketa egitea 2014ko otsailaren 1etik aurrera, elkarbizitza unitatea batekoa izatetik bikoa izatera pasa dela-



ko. Astean 2 orduko zerbitzua dutenez, espediente honek jasotzen dituen 2 onuradunetako batek ordu bete ordainduko du eta bere ekarpena zerbitzu kostuaren %3a izango da eta beste onuradunak beste ordua ordainduko du eta bere ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 13-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea otsailetik, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 13-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimendu gastuetarako laguntzatik baja ematea apiriletik, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 13-01-012 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntza kopurua aldatzea hilean 232,5 € jasotzetik 250 € jasotzera, urtarriletik ekainera eta mantenimendu gastuetarako laguntza kopurua aldatzea hilean 43,02 € jasotzetik 46,25 € jasotzera, urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 13-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako laguntza kopurua aldatzea hilean 232,5 € jasotzetik 250 € jasotzera, urtarriletik ekainera eta mantenimendu gastuetarako laguntza kopurua aldatzea hilean 43,02 € jasotzetik 46,25 € jasotzera, urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 13-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 46,25 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren % 100a da.
- 14-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 192,5 € ematea, martxotik abendura eta mantenimendu gastuetarako hilean 35,61 € ematea, martxotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren % 77a da.
- 14-01-003 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 41,17 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren % 89a da.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN HIGIENE ETA GARBIKETA PRODUKTUEN HORNIDURAREN ESPEDIENTEARI ATXIKIPENA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakin arazi du, Higiene eta garbiketa produktu hornidura kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera dihoala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Honen aurrean eta kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu hau behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, erabakitzen du: Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak higiene



eta garbiketa produktuen hornidura kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'E. I.', located to the right of the text.

